

<b>GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU-BATZARRAK 2018KO MARTXOAREN 6AN LEHENENGO DEIALDIAN EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.</b>	<b>ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 6 DE MARZO DE 2018.</b>
<b><u>BERTARATUAK</u></b>	<b><u>ASISTENTES</u></b>
<b><u>LEHENDAKARIA</u></b>	<b><u>PRESIDENTE</u></b>

Imanol Landa Jauregi jn.

<b><u>BATZARKIDEAK</u></b>	<b><u>V O C A L E S</u></b>
----------------------------	-----------------------------

Keltse Eiguren Alberdi And.  
Joseba Arregui Martínez Jn.  
Álvaro González Pérez Jn.  
Elena Coria Yanguas And.  
Ignacio Uriarte Gorostiaga Jn.  
Jose Luis Landa Arteche Jn.

<b><u>IDAZKARI NAGUSIA</u></b>	<b><u>SECRETARIO GENERAL</u></b>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxo Udaletxean, bi mila eta hamazortziko martxoaren seian, Imanol Landa Jauregi alkate jauna bilerako buru dela, goizeko bederatzieta Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotzietz gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

Alkateak, legeak eskatzen duen kidekopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a seis de marzo de dos mil dieciocho, y bajo la presidencia del Sr. Alcalde, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**92.- UDALEKO GOBERNU  
BATZARRAK 2018KO OTSAILAREN  
27AN EGIN DUEN OHIKO  
BILERAKO AKTA ONESTEA.**

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2018ko otsailaren 27ko bilerakoa, hain zuzen.

**OGASUNA, KONTUAK,  
EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA  
BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA  
EUSKARA**

**93.- ESKOLA-ANTZERKIKO  
ESKOLAK EMATEKO ZERBITZUA  
LUZATZEKO ETA 2018/2019  
IKASTURTEAN ESKOLA-  
ANTZERKIKO JARDUNALDIA  
ANTOLATZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA: 2018/2019 ikasturtean luzatuko da (lehenengo luzapena) "GUABE" EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN EREMUAN HAUR ANTZERKIA HEDATZEN ETA SUSTATZEN DUEN ELKARTEAREKIN, G-95337986 IFK, sinatutako kontratuaren indarraldia, ESKOLA ANTZERKIKO KLASEAK EMATEKO ETA ESKOLA ANTZERKIKO JARDUNALDIA ANTOLATZEKO ZERBITZURAKO, urtean 49.515,70.- eurotan, gehi BEZaren 10.272,30.- euro, honela banakatuta:

- BEGIRALEAK: 39.064,05.-euro gehi % 21eko BEZari dagozkion

**92.- APROBACIÓN, SI PROCEDE,  
DEL ACTA DE LA ANTERIOR  
SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA  
EL DÍA 27 DE FEBRERO DE 2018.**

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 27 de febrero de 2018.

**HACIENDA, CUENTAS,  
PROMOCIÓN ECONÓMICA,  
RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD  
Y EUSKERA**

**93.- PRÓRROGA DEL SERVICIO  
PARA IMPARTIR CLASES DE  
TEATRO ESCOLAR Y ORGANIZAR  
LA JORNADA DE TEATRO  
ESCOLAR DURANTE EL CURSO  
2018/2019.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Prorrogar durante el curso escolar 2018/2019 (primera prórroga), la vigencia del contrato suscrito con la ASOCIACIÓN PARA LA DIFUSIÓN Y PROMOCIÓN DEL TEATRO INFANTIL EN EL ÁMBITO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA GUABE, con C.I.F. G-95337986 del SERVICIO PARA IMPARTIR CLASES DE TEATRO ESCOLAR Y ORGANIZAR LA JORNADA DE TEATRO ESCOLAR, por un importe anual de 49.515,70.-euros más 10.272,30.-euros de I.V.A. desglosado como sigue:

- MONITORES: 39.064,05.-€ más 8.203,45.-€ correspondiente al 21% de

8.203,45.-euroak.

- ESKOLETAKO MATERIALA: 3.715,29.-euro gehi % 21eko BEZari dagozkion 780,21.-euroak.

- ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA (BEZetik salbuetsita): 600.-€

- ANTZERKI JARDUNALDIA: 6.136,36.-euro gehi % 21eko BEZari dagozkion 1.288,64.-euroak.

BIGARRENA: 49.515,70.-euroko beharrezko gastua egiteko baimena ematea eta xedatzea, gehi BEZaren 10.272,30.-euro, aipatutako kontratua luzatzeagatik datozen gastuei aurre egiteko.

**94.- DESINFEKTATZEKO, ETA INTSEKTUAK NAHIZ ARRATOIAK HILTZEKO ZERBITZUAREN PREZIOEN BERRIKUSPENA ONESTEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA: "Anticimex 3D Sanidad Ambiental, S.A." sozietateari (IFK: A-82850611) prezioen berrikuspena onestea 2016-10-31tik aurrera DESINFEKTATZEKO, ETA INTSEKTUAK ETA ARRATOIAK HILTZEKO ZERBITZUA emateko, % 0,6ko igoyeraren arabera (KPIak Euskal Autonomia Erkidegoan 2015eko urritik 2016ko urrira izandako aldakuntzaren % 0,7aren % 85, hain zuzen ere). Hala, zerbitzu horretarako urteko eguneratutako zenbatekoa 18.927,04 eurokoa izango da (BEZa barne), eta honela banakatuko da:

- Arratoiak hiltzeko zerbitzua:

I.V.A.

- MATERIAL CLASES: 3.715,29.-€ más 780,21.-€ correspondiente al 21% de I.V.A.

- SEGURO DE R.C. (exento de I.V.A.): 600.-€

- JORNADA DE TEATRO: 6.136,36.-€ más 1.288,64.-€ correspondiente al 21% de I.V.A.

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario por importe de 49.515,70.-euros más 10.272,30.-euros de I.V.A. para hacer frente a los gastos de prorrogar el contrato de referencia.

**94.- APROBACIÓN DE LA REVISIÓN DE PRECIOS DEL SERVICIO DE DESRATIZACIÓN, DESINFECCIÓN Y DESINSECTACIÓN.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Aprobar la revisión de precios a la razón social "Anticimex 3D Sanidad Ambiental, S.A.", con C.I.F A-82850611 a partir del día 31/10/2016 para el SERVICIO DE DESRATIZACIÓN, DESINFECCIÓN Y DESINSECTACIÓN de acuerdo con el incremento del 0,6% (correspondiente al 85% de 0,7 variación experimentada por el IPC de la Comunidad Autónoma Vasca desde el mes de octubre de 2015 al mes de octubre de 2016) resultando un importe anual actualizado para este servicio de 18.927,04.-euros I.V.A. Incluido, que se desglosa de la siguiente manera:

- Por el Servicio de desratización:

14.875,45.-€ gehi 1.487,55.-€ (BEZaren % 10).

- Desinfekziorako eta intsektuak hiltzeko zerbitzua: 2.119,04.-€ gehi 445.-€ (BEZaren % 21).

BIGARRENA: "Anticimex 3D Sanidad Ambiental, S.A." sozietateari (IFK: A-82850611) prezioen berrikuspena onestea 2017-10-31tik aurrera DESINFEKTATZEKO, ETA INTSEKTUAK ETA ARRATOIAK HILTZEKO ZERBITZUA emateko, % 1,36ko igoyeraren arabera (KPIak Euskal Autonomia Erkidegoan 2016ko urritik 2017ko urrira izandako aldakuntzaren % 1,6aren % 85, hain zuzen ere). Hala, zerbitzu horretarako urteko eguneratutako zenbatekoa 19.184,45 eurokoa izango da (BEZa barne), eta honela banakatuko da:

- Arratoiak hiltzeko zerbitzua: 15.077,76.-€ gehi 1.507,78.-€ (BEZaren % 10).

- Desinfekziorako eta intsektuak hiltzeko zerbitzua: 2.147,86.-€ gehi 451,05.-€ (BEZaren % 21).

HIRUGARRENA: Behar den gastua baimentzea eta xedatzea, 112,88 eurokoa (BEZaren % 10 eta % 21 barne), 2016-10-31tik 2017-10-30era bitarteko prezioen berrikuspenari aurre egiteko. Honela banakatuko da:

- Arratoiak hiltzeko zerbitzua: 88,72.-€ gehi 8,87.-€ (BEZaren % 10).

- Desinfekziorako eta intsektuak hiltzeko zerbitzua: 12,64.-€ gehi 2,65.-€ (BEZaren % 21).

14.875,45.-€, más 1.487,55.-€ correspondientes al 10% del I.V.A.

- Servicio de desinfección y desinsectación: 2.119,04.-€, más 445.-€ correspondientes al 21% del I.V.A.

SEGUNDO: Aprobar la revisión de precios a la razón social "Anticimex 3D Sanidad Ambiental, S.A.", con C.I.F A-82850611 a partir del día 31/10/2017 para el SERVICIO DE DESRATIZACIÓN, DESINFECCIÓN Y DESINSECTACIÓN de acuerdo con el incremento del 1,36% (correspondiente al 85% de 1,6 variación experimentada por el IPC de la Comunidad Autónoma Vasca desde el mes de octubre de 2016 al mes de octubre de 2017) resultando un importe anual actualizado para este servicio de 19.184,45.-euros I.V.A. Incluido, que se desglosa de la siguiente manera:

- Por el Servicio de desratización: 15.077,76.-€, más 1.507,78.-€ correspondientes al 10% del I.V.A.

- Servicio de desinfección y desinsectación: 2.147,86.-€, más 451,05.-€ correspondientes al 21% del I.V.A.

TERCERO: Autorizar y disponer el gasto necesario por importe de 112,88.-€, (I.V.A. del 10% y 21% incluido), para hacer frente a la revisión de precios del 31/10/2016 al 30/10/2017, conforme al siguiente desglose:

- Servicio de desratización: 88,72.-euros más 8,87.-euros correspondiente al 10% de I.V.A.

- Servicio de desinfección y desinsectación: 12,64.-euros más 2,65.-euros correspondiente al 21% de I.V.A.

Halaber, behar den gastua baimentzen eta xedatzen da, 112,88 eurokoa, 2017 10 31tik 2018-10-30era bitarteko 2016ko berrikuspenari dagokiona.

LAUGARRENA: Behar den gastua baimentzea eta xedatzea, 257,41.-eurokoa (BEZaren % 10 eta % 21 barne), 2017-10-31tik 2018-10-30era bitarteko prezioen berrikuspenari aurre egiteko. Honela banakatuko da:

- Arratoiak hiltzeko zerbitzua: 202,31.-€ gehi 20,23.-€ (BEZaren % 10).
- Desinfekziorako eta intsektuak hiltzeko zerbitzua: 28,82.-€ gehi 6,05.-€ (BEZaren % 21).

**95.- ALANGO-AIBOAN OINEZKOENTZAKO IBILBIDEAK HOBETZEKO ETA SENDOTZEKO OBREN PROIEKTUA ONESTEKO, ADJUDIKATZEKO ESPEDIENTEA HASTEKO, PLEGUAK ONESTEKO ETA GASTUA BAIMENTZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA: ALANGO - AIBOAN OINEZKO IBILBIDEAK HOBETZEKO ETA SENDOTZEKO HOBEKUNTZA OBREN proiektua onestea. Beraren aurrekontua 513.838,49 eurokoa da, BEZa barne. Obra egiteko epea gehienez ere 20 (hogei) astekoa izango da (edo eskaintzan ageri dena, agertzekotan), zuinketa egiaztatzeako akta sinatzen denetik zenbatuta.

Así mismo, se autoriza y dispone el gasto necesario por importe de 112,88.-euros relativo al efecto de la revisión 2016 en el período del contrato del 31/10/2017 al 30/10/2018.

CUARTO: Autorizar y disponer el gasto necesario por importe de 257,41.-€, (I.V.A. del 10% y 21% incluido), para hacer frente a la revisión de precios del 31/10/2017 al 30/10/2018, conforme al siguiente desglose:

- Servicio de desratización: 202,31.-euros más 20,23.-euros correspondiente al 10% de I.V.A.
- Servicio de desinfección y desinsectación: 28,82.-euros más 6,05.-euros correspondiente al 21% de I.V.A.

**95.- APROBACIÓN DEL PROYECTO DE OBRAS DE MEJORA Y CONSOLIDACIÓN DE LOS ITINERARIOS PEATONALES EN ALANGO-AIBOA, INICIAR EL EXPEDIENTE PARA SU ADJUDICACIÓN, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Aprobar el Proyecto de las OBRAS DE MEJORA Y CONSOLIDACIÓN DE LOS ITINERARIOS PEATONALES EN ALANGO-AIBOA, cuyo Presupuesto asciende 513.838,49 euros, I.V.A. incluido y su plazo de ejecución será como máximo de 20 (veinte) semanas (o en su caso el que se deduzca de la oferta presentada), a contar desde el Acta de Comprobación de Replanteo.

BIGARRENA: Aipatutako obra adjudikatzeko izapidea hasia baimentzea, prozedura irekiaren bitartez.

HIRUGARRENA: Administrazio-kontratazioa eraendu behar duten administrazio-klausula berezi eta teknikoaren onestea.

LAUGARRENA: Beharrezko gastua baimentzea, aipatutako kontratazioaren ondorioz sortutako betebehari aurre egiteko, hain zuzen, 513.838,49 euroan. Aurrekontuko gerakin egokia arribideko urteko aurrekontuan sartu beharko da; bestela, kontratua etengo da.

**96.- ALGORTAKO ETORBIDEA (TORRENE ETA MARIANDRESENAREN ARTEAN) ETA MARIANDRESENA KALEA BERRURBANIZATZEKO OBREN (2. FASEA) PROIEKTUA ONESTEA, ADJUDIKATZEKO ESPEDIENTEA HASTEA, PLEGUAK ONESTEA ETA GASTUA BAIMENTZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA: Onetsi egingo da ALGORTAKO ETORBIDEA (TORRENE ETA MARIANDRESENA ARTEAN) BERRURBANIZATZEKO - 2. FASEA- ETA MARIANDRESENA KALEA BERRURBANIZATZEKO OBREN proiektua. Haren aurrekontua 549.798,19 eurokoa da, BEZa barne. Hura egikaritzeko epea gehienez ere 20 (hogei) astekoa izango da, zuinketa egiaztatzeke aktatik aurrera zenbatuta.

BIGARRENA: Aipatutako obra

SEGUNDO: Autorizar el inicio de la tramitación, por el Procedimiento Abierto, para la adjudicación de la obra de referencia.

TERCERO: Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

CUARTO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación citada, por importe de 513.838,49 euros, bajo la condición suspensiva de la incorporación del correspondiente remanente presupuestario al presupuesto del año en curso.

**96.- APROBACIÓN DEL PROYECTO DE OBRAS DE REURBANIZACIÓN DE LA AVDA DE ALGORTA (ENTRE TORRENE Y MARIANDRESENA) 2ª FASE, Y CALLE MARIANDRESENA, INICIAR EL EXPEDIENTE PARA SU ADJUDICACIÓN, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Aprobar el Proyecto de las OBRAS DE REURBANIZACIÓN DE LA AVENIDA ALGORTA (ENTRE TORRENE Y MARIANDRESENA) - 2ª FASE- Y CALLE MARIANDRESENA, cuyo Presupuesto asciende 549.798,19 euros, I.V.A. incluido y su plazo de ejecución será como máximo de 20 (veinte) semanas, a contar desde el Acta de Comprobación de Replanteo.

SEGUNDO: Autorizar el inicio de la

adjudikatzeke izapidea hasia baimentzea, prozedura irekiaren bitartez.

HIRUGARRENA: Administrazio-kontratazioa eraendu behar duten administrazio-klausula berezi eta teknikoek pleguak onestea.

LAUGARRENA: Aipatutako kontratazioak dakartzen betebeharrei aurre egiteko behar den gastua baimentzea, 549.798,19 eurotan.

**97.- "AIBOA BERRIA" ERAIKINA ERAIKITZEKO HIRIGINTZA-NAHIZ ARKITEKTURA-JARDUKETAK ADJUDIKATZEKO ESPEDIENTEA HASTEAN, PLEGUAK ONESTEA ETA GASTUA BAIMENTZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA: Baimena emango da "AIBOA BERRIA" ERAIKINA ETORKIZUNEAN ERAIKITZEKO HIRIGINTZAKO ETA ARKITEKTURAKO JARDUKETAK prozedura irekiaren bidez adjudikatzeke arauzko izapideak hasteko.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 300.000 eurokoa izango da, % 21eko BEZa barne.

Kontratuak 15 hilabete iraungo du, hura sinatzen denetik aurrera, baina Administrazio Klausulen Pleguaren 3. idatz-zatia jasotako zehaztapenekin.

BIGARRENA: Administrazio-

tramitazioa, por el Procedimiento Abierto, para la adjudicaci3n de la obra de referencia.

TERCERO: Aprobar los Pliegos de Cl3sulas Administrativas Particulares y T3cnicas que han de regir la contrataci3n administrativa.

CUARTO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contrataci3n citada, por importe de 549.798,19 euros.

**97.- INICIO DEL EXPEDIENTE PARA LA ADJUDICACI3N DE LAS ACTUACIONES URBANÍSTICAS Y ARQUITECT3NICAS DIRIGIDAS A LA FUTURA CONSTRUCCI3N DEL EDIFICIO "AIBOA BERRIA", APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

A propuesta del concejal responsable del 3rea de Contrataci3n, Sistemas de Informaci3n y Deportes, se acord3:

PRIMERO: Autorizar el inicio de la tramitaci3n reglamentaria para la adjudicaci3n, mediante Procedimiento Abierto, de las ACTUACIONES URBANÍSTICAS Y ARQUITECT3NICAS DIRIGIDAS A LA FUTURA CONSTRUCCI3N DEL EDIFICIO "AIBOA BERRIA".

El presupuesto base de licitaci3n ser3 de 300.000 euros, I.V-A del 21% incluido.

El plazo de duraci3n del contrato es de 15 meses, a contar desde la firma del mismo, si bien con las especificaciones recogidas en el apartado 3 del Pliego de Cl3sulas Administrativas.

SEGUNDO: Aprobar los Pliegos de

kontratazioa eraendu behar duten administrazio-klausula berezi eta teknikoaren plenguak onestea.

HIRUGARRENA: Beharrezko gastua baimentzea, aipatutako kontratazioaren ondorioz sortutako betebeharreari aurre egiteko, hain zuzen, 300.000 euroan. Aurrekontuko gerakin egokia aribideko urteko aurrekontuan sartu beharko da; bestela, kontratua etengo da.

**98.- GETXOLANEKO ELKARTEGIKO EKITALDIAK KUDEATZEKO KONTRATUAREN ALDAKETA ONESTEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA.- Onetsi egingo da GETXOLANEN GETXO ELKARTEGIKO ERAIKINAREN EKITALDIEN KUDEKAETA ZERBITZUA - GETXOKO UDALAREN EKONOMIA SUSTAPENEN ETA ENPLEGUKO ZERBITZUA emateko kontratuaren aldaketa, GERONA GRUP BILBAO enpresari, B95226932 IFK, adjudikatu zitzaiona Tokiko Gobernu Batzarraren 2017-02-21eko ohiko bilkurako erabakiaren bidez.

Aldaketa horren funtsa da 1.645,60 euro (MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA BOST EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMO), % 21eko BEZa barne, gehitzea urteko gehieneko aurrekontuaren zenbatekoa, 34 ekitaldi berezizatik, ekitaldi berezien zerbitzuaren premiei erantzun ahal izateko.

Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

TERCERO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación citada, por importe de 300.000 euros, bajo la condición suspensiva de la incorporación del correspondiente remanente presupuestario al presupuesto del año en curso.

**98.- APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN DEL CONTRATO DE GESTIÓN DE EVENTOS DEL ELKARTEGIA DE GETXOLAN.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO.- Aprobar la modificación del contrato del SERVICIO DE GESTIÓN DE EVENTOS DEL EDIFICIO DE GETXO ELKARTEGIA DE GETXOLAN - SERVICIOS DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y EMPLEO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, adjudicado a la empresa GERONA GRUP BILBAO, con CIF B95226932, mediante Acuerdo de la Junta de Gobierno Local, en sesión ordinaria, de fecha 21/02/2017.

Dicha modificación consiste en ampliar en 1.645,60€ (MIL SEISCIENTOS CUARENTA Y CINCO euros y SESENTA céntimos), IVA del 21% incluido, correspondientes a 34 eventos extraordinarios, el importe del presupuesto máximo anual previsto a fin de atender a las necesidades del servicio de eventos extraordinarios.



BIGARRENA.- Gastu nahikoa baimendu eta xedatuko da, GETXOLANEN GETXO ELKARTEGIKO ERAIKINAREN EKITALDIEN KUDEAKETA ZERBITZUA - GETXOKO UDALAREN EKONOMIA SUSTAPENeko ETA ENPLEGUko ZERBITZUA emateko kontratua aldatu ahal izateko, gehienez ere 1.645,60 eurotan (MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA BOST euro eta HIRUROGEI zentimotan), % 21eko BEZa barne, ekitaldi berezien zerbitzurako aurrekontuari dagokionez.

HIRUGARRENA.- Adjudikaziodunak Udal Diruzaintzan berme osagarria egin beharko du, 68,00 eurokoa (HIRUROGEITA ZORTZI eurokoa), erabaki hau jakinarazten denetik 15 (HAMABOST) egun balioduneko epean.

LAUGARRENA.- Proposatutako aldaketa administrazio-dokumentuan formalizatuko da, 15 (HAMABOST) egun balioduneko epearen barnean, ebazpen hau enpresa adjudikaziodunari jakinarazten zaionetik kontatzen hasita.

**99.- 1,3, 4, 5 ETA 7 ZENBAKIDUN LOTEAK ADJUDIKATZEA, PUNTA BEGOÑAKO GALERIEN BALIOA NABARMENTZEKO HAINBAT ARKITEKTURA-PROIEKTU IDAZTEKO HELBURUAREKIN.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA: Hutsik geratuko dira 2. lotea (Segurtasun hesia -

SEGUNDO.- Autorizar y disponer el gasto necesario para hacer frente a la modificación del contrato del SERVICIO DE GESTIÓN DE EVENTOS DEL EDIFICIO DE GETXO ELKARTEGIA DE GETXOLAN - SERVICIOS DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y EMPLEO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO por un importe máximo de 1.645,60€ (MIL SEISCIENTOS CUARENTA Y CINCO euros y SESENTA céntimos), IVA del 21% incluido, en lo relativo al presupuesto para el servicio de eventos extraordinarios.

TERCERO.- El adjudicatario deberá constituir en la Tesorería Municipal, en el plazo de 15 (QUINCE) días hábiles, contado desde la notificación del presente acuerdo, una garantía complementaria por importe de 68,00€ (SESENTA Y OCHO euros).

CUARTO.- La modificación propuesta se formalizará en documento administrativo, dentro del plazo de 15 (QUINCE) días hábiles, a contar desde la notificación a la empresa adjudicataria de la presente resolución.

**99.- ADJUDICACIÓN DE LOS LOTES 1,3, 4, 5 Y 7 PARA LA REDACCIÓN DE DIVERSOS PROYECTOS DE ARQUITECTURA DENTRO DE LA PUESTA EN VALOR DE LAS GALERÍAS PUNTA BEGOÑA.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Declarar desiertos los lotes 2 (Vallado de seguridad-Expositor en

Atxekolandeta kaleko mugako erakustegia) eta 6. lotea (Iparraldeko galeriako aretoko estradoseko ezpondan esku hartzeko lanetarako egitura osagarria), PUNTA BEGOÑAKO GALERIEN BALIOA NABARMENTZEAREN BARRUAN ARKITEKTURAKO ZENBAIT PROIEKTU IDAZTEKO kontratua adjudikatzeko lizitazioan.

límite con calle Atxekolandeta) y 6 (Estructura auxiliar para los trabajos de intervención en el talud del trasdós del salón de la galería norte) de la licitación para la adjudicación del contrato de REDACCIÓN DE DIVERSOS PROYECTOS DE ARQUITECTURA DENTRO DE LA PUESTA EN VALOR DE LAS GALERÍAS PUNTA BEGOÑA.

BIGARRENA: Kontratu horren 1, 3, 4, 5 eta 7. loteak erakunde hauei adjudikatzea:

SEGUNDO: Adjudicar los lotes 1, 3, 4, 5 y 7 del contrato de referencia a las siguientes entidades:

- 1. LOTEA (SEGURTASUN HESIAK-GALERIEN BARRUKO ERAKUSTEGIA): "ATELIER80 ARQUITECTOS S.COOP. PEQ.P"., S.L., F-95837225 IFK: 5.800.-€ gehi 1.218 €, % 21eko BEZarenak, balorazioen laburpen-koadro honen arabera:

- LOTE 1 (VALLADO DE SEGURIDAD-EXPOSITOR ZONA INFERIOR DE LAS GALERÍAS): "ATELIER80 ARQUITECTOS S.COOP. PEQ.P"., S.L. con CIF: F-95837225, por importe de 5.800.-€, más 1.218 € correspondientes al I.V.A. de 21%, de acuerdo con el siguiente cuadro-resumen de valoraciones:

LIZITATZAILEAK	IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOEN BALORAZIOA	IRIZPIDE AUTOMATIKOEN BALORAZIOA	GUZTIRA
LICITADORES	VALORACION CRITERIOS NO AUTOMATICOS	VALORACION CRITERIOS AUTOMATICOS	TOTAL
ATELIER80 ARQUITECTOS S.COOP. PEQ.P.	60,00	36,21	<b>96,21</b>
IBAI GANDIAGA (y otros)	31,00	40,00	<b>71,00</b>
JOSE GORRITXO HERRERO	25,00	25,41	<b>50,41</b>
ARRIAZU&GARAY S.L.P.	6,00	30,00	<b>36,00</b>

- 3. LOTEA (Interpretaziorako eta bisitariak hartzeko zentroa): Pertsona hauek eratutako EABBa: AGURTZANE ELGUREN LARRAÑAGA andrea, NAN: 72.452.762-W, IBAI GANDIAGA PEREZ DE ALBENIZ jauna, NAN: 16.058.560-Y,

- LOTE 3 (Centro de interpretación y recepción de visitantes): U.T.E. formada por las siguientes personas: Dña. AGURTZANE ELGUREN LARRAÑAGA con DNI: 72.452.762-W, D. IBAI GANDIAGA PEREZ DE

eta RAQUEL VILLAR ZABALA andrea, NAN: 72.792.972-L, 8.925,62 eurotan, gehi %21eko BEZaren 1.874,38 €, balorazioen laburpen-koadro honekin bat etorritz:

ALBENIZ con DNI: 16.058.560-Y y Dña. RAQUEL VILLAR ZABALA con DNI: 72.792.972-L, por importe de 8.925,62 euros, más 1.874,38 € correspondientes al I.V.A. de 21%, de acuerdo con el siguiente cuadro-resumen de valoraciones:

<b>LIZITATZAILEAK</b>	<b>IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOEN BALORAZIOA</b>	<b>IRIZPIDE AUTOMATIKOEN BALORAZIOA</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>LICITADORES</b>	<b>VALORACION CRITERIOS NO AUTOMATICOS</b>	<b>VALORACION CRITERIOS AUTOMATICOS</b>	<b>TOTAL</b>
GANDIAGA	36 puntos	40 puntos	76 PUNTOS
GORRITXO	35 puntos	36 puntos	71 PUNTOS

- 4. LOTEA (Punta Begoñako Galerien Balioa Nabarmentzeko kudeaketa zentroa): LANDA OCHANDIANO ARQUITECTOS, S.C.P., IFK: J-01305655, 11.800 eurotan, gehi % 21eko BEZaren 2.478 €, balorazioen laburpen-koadro honen arabera:

- LOTE 4 (Centro de gestión de la puesta en valor de las Galerías Punta Begoña): LANDA OCHANDIANO ARQUITECTOS, S.C.P. con CIF: J-01305655, por importe de por importe de 11.800 euros, más 2.478€ correspondientes al I.V.A. de 21%, de acuerdo con el siguiente cuadro-resumen de valoraciones:

<b>LIZITATZAILEAK</b>	<b>IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOEN BALORAZIOA</b>	<b>IRIZPIDE AUTOMATIKOEN BALORAZIOA</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>LICITADORES</b>	<b>VALORACION CRITERIOS NO AUTOMATICOS</b>	<b>VALORACION CRITERIOS AUTOMATICOS</b>	<b>TOTAL</b>
LANDA-OCHANDIANO	58 puntos	38,98 puntos	96,98 PUNTOS
GORRITXO	41 puntos	40 puntos	81 PUNTOS

- 5. LOTEA (Ezpondan eta euskarri modura duten elementu arkitektonikoetan, iparraldeko galeriaren aretoko estradosean esku hartzea): DIMARK ESTRUCTURAS EN LA ARQUITECTURA, S.L.P., B-95785473 IFK, 7.438 eurotan, gehi % 21eko BEZaren 1.561,98 €, balorazioen laburpen-koadro

- LOTE 5 (Intervención en el talud y los elementos arquitectónicos que apoyan en el mismo, en el trasdós del salón de la galería norte): DIMARK ESTRUCTURAS EN LA ARQUITECTURA, S.L.P. con CIF: B-95785473, por importe de 7.438 euros, más 1.561,98€ correspondientes al I.V.A. de 21%,de acuerdo con el

honen arabera:

siguiente cuadro-resumen de valoraciones:

<b>LIZITATZAILEAK</b>	<b>IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOEN BALORAZIOA</b>	<b>IRIZPIDE AUTOMATIKOEN BALORAZIOA</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>LICITADORES</b>	<b>VALORACION CRITERIOS NO AUTOMATICOS</b>	<b>VALORACION CRITERIOS AUTOMATICOS</b>	<b>TOTAL</b>
DIMARK	39 puntos	40 puntos	79 PUNTOS

- 7. LOTEA (Hegoaldeko galeriaren ekialdeko muturra drainatzea): ARRIAZU & GARAY, S.L.P., B-48876205 IFK, 9.000 eurotan, gehi % 21eko BEZaren 1.890 €, balorazioen laburpen-koadro honen arabera:

- LOTE 7 (Drenaje del extremo oriental de la galería sur): ARRIAZU & GARAY, S.L.P. con CIF: B-48876205, por importe de 9.000 euros, más 1.890€ correspondientes al I.V.A. de 21%, de acuerdo con el siguiente cuadro-resumen de valoraciones:

<b>LIZITATZAILEAK</b>	<b>IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOEN BALORAZIOA</b>	<b>IRIZPIDE AUTOMATIKOEN BALORAZIOA</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>LICITADORES</b>	<b>VALORACION CRITERIOS NO AUTOMATICOS</b>	<b>VALORACION CRITERIOS AUTOMATICOS</b>	<b>TOTAL</b>
ARRIAZU&GARAY	11 puntos	40 puntos	51 PUNTOS

Kontratua betetzeko epeak Baldintza Teknikoen Pleguaren 18. idatz-zatian ezarritakoak izango dira. Kontratua ezingo da luzatu.

Los plazos de ejecución del contrato serán los establecidos en el apartado 18 del Pliego de Condiciones Técnicas. El contrato no es susceptible de prórroga.

HIRUGARRENA: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 156. artikuluan adierazitakoaren arabera, adjudikaziodunek Kontratazio Zerbitzuaren bulegoetan (helbidea: Foruak kalea, 8) agertu beharko dute kontratua administrazio dokumentu gisa gauzatzeko. Halaxe jakinaraziko zaie, dagokionean.

TERCERO: Las adjudicatarias, de conformidad con lo indicado en el artículo 156 del TRLCSP, deberán comparecer en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle Fueros nº8, para formalizar el contrato en documento administrativo, a cuyos efectos serán oportunamente avisadas.

Kontratistei egotzi beharreko arrazoiak

En el caso de falta de formalización del

direla medio kontratua ez bada sinatzen, administrazioak kontratua suntsiaraztea erabaki dezake, interesatuari entzunaldia eman ondoren, gaitz eta kalteen kalte-ordainekin.

LAUGARRENA: Ebazpen honen berri ematea prozeduran parte hartu duten lizitatzaleei, agiri hauen kopiarekin batera:

- 2017-07-04an egindako txostena, kaudimenaren gutxieneko betekizunak betetzeari buruzkoa.
- Adituen Batzordeak irizpide ez automatikoei buruz 2017-10-03an egindako txostena.
- 2017-10-19an egindakoa, irizpide automatikoen ingurukoa.

**100.- EUSKARAREN JAKITE MAILA AREAGOTZEA ETA EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA HELBURU DUTEN DIRULAGUNTZEN 2018KO OINARRIAK ONARTZEA.**

Kultura, Euskara eta Gazteria Arloko zinegotziak proposatuta, erabaki hau hartu da:

- 1.- Getxoko Udalak euskara sustatzeko eskaintzen dituen laguntzen deialdia eta honi dagozkion oinarriak onartzea.
- 2.- Euskara ikasteko eta euskara sustatzeko helburuarekin, Udalak gizabanakoei ematen dizkien diru-laguntzetarako, 2018. urtean, 63.360 euroko diru-gastua baimentzea. Honako hauek dira Getxoko Udalak onartzen dituen laguntzak eta bakoitzak duen kreditua:

1. Euskara ikasteko diru-laguntzak

contrato por causas imputables a las contratistas, la Administración podrá acordar la resolución del mismo, previa audiencia del interesado, con indemnización de daños y perjuicios.

CUARTO: Notificar la presente resolución a los licitadores que han licitado en el procedimiento, junto con copia de los siguientes documentos:

- El informe emitido en fecha 4/7/2017 acerca de los requisitos mínimos de solvencia.
- El informe emitido por el Comité de Expertos en fecha 3/10/2017 acerca de los criterios no automáticos.
- El emitido en fecha 19/10/2017 acerca de los criterios automáticos.

**100.- APROBACIÓN DE LA CONVOCATORIA PARA LAS AYUDAS DE CARA AL IMPULSO DEL CONOCIMIENTO Y USO DEL EUSKERA, AÑO 2018.**

A propuesta del concejal del Área de Cultura, Euskera y Juventud, se acordó:

- 1.- Aprobar la convocatoria y sus correspondientes bases de las ayudas que el Ayuntamiento de Getxo ofrece con el objetivo de fomentar el euskera.
- 2.- Autorizar, para el año 2018, el gasto de 63.360 euros para la concesión de subvenciones de cara al aprendizaje del euskera a particulares. Las ayudas que se aprueban y los créditos presupuestarios correspondientes son los siguientes:

1. Ayudas para aprender euskera

baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela frogatzen duten getxotarrentzat: 55.360 euro.

2. Euskara ikasteko diru-laguntzak udaleko eta bere erakunde autonomoetako langileentzat eta zinegotzientzat: 1.000 euro.

3. Laguntzak gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egiteagatik: 6.000 euro.

4. Aisialdiko begirale eta zuzendari agiria lortzeko euskarazko ikastaroetarako diru-laguntzak: 1.000 euro.

GUZTIRA.....63.360 EURO

Diru-laguntza hauek Euskara Zerbitzuak bere aurrekontuetan duen honako partida honetatik ordainduko dira: 451304800000. Bost atal hauetarako agertzen den diru-kopurua gainontzeko ataletako diru-laguntzetarako erabili ahal izango da aurrekontu-partidan kreditu nahikoa dagoen bitartean.

3.- Euskara ikasteko eta euskara sustatzeko helburuarekin, Udalak enpresei ematen dizkien diru-laguntzetarako, 2018. urtean, 7.000 euroko diru-gastua baimentzea. Honako hauek dira Getxoko Udalak onartzen dituen laguntzak eta bakoitzak duen kreditua:

1. Diru-laguntzak errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskaraz ipintzeko: 7.000 euro.

GUZTIRA.....7.000 EURO

Diru-laguntza hauek Euskara Zerbitzuak bere aurrekontuetan duen honako partida honetatik ordainduko dira: 45130-4700000.

Gizabanakoentzako diru-laguntzen partidako kreditua enpresentzako diru-laguntzetarako erabili ahal izango da

para los/as getxotarras con recursos económicos insuficientes: 55.360 euros.

2. Ayudas para aprender euskera al personal del Ayuntamiento y sus entes autónomos, así como a corporativos: 1.000 euros

3. Ayudas para la obtención del permiso de conducir en euskera: 6.000 euros.

4. Ayudas para cursos en euskera de cara a la obtención del título de monitor/a y/o director/a de tiempo libre: 1.000 euros.

TOTAL.....63.360 EUROS

Estas subvenciones se abonarán con cargo a la partida 45130-4800000 del área de Euskera. El crédito consignado para cada línea de subvención podrá ser utilizado para la concesión de subvenciones de otras líneas siempre y cuando exista crédito suficiente para ello.

3.- Autorizar, para el año 2018 el gasto de 7.000 euros para la concesión de subvenciones de cara al aprendizaje y fomento del euskera a empresas. Las ayudas que se aprueban y los créditos presupuestarios correspondientes son los siguientes:

1. Ayudas a la rotulación en euskera de rótulos, toldos y vehículos comerciales: 7.000 euros.

TOTAL.....7.000 EUROS

Estas subvenciones se abonarán con cargo a la partida 45130-4700000 del área de Euskera.

El crédito de la partida dirigida a particulares podrá ser utilizado para subvenciones dirigidas a empresas y

eta alderantziz, aurrekontu partidan kreditu nahikoa dagoen bitartean. Horretarako, aldeaz aurretik, baimendutako gastua bi partiden artean birbanatzeko Tokiko Gobernu Batzak akordioa egon beharko da.

4.- Eskaerak egiteko epe hauek onartzen dira:

□ Euskara ikasteko diru-laguntzak: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren laburpena argitaratu eta biharamunetik hasita 2018ko irailaren 30era arte (barne).

□ Gidabaimena lortzeko azterketa euskaraz egiteagatik diru-laguntzak gazteentzat: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren laburpena argitaratu eta biharamunetik hasita 2018ko abenduaren 31ra arte (barne).

□ Aisialdiko begirale eta zuzendari agiria lortzeko euskarazko ikastaroetarako diru-laguntzak: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren laburpena argitaratu eta biharamunetik hasita 2018ko abenduaren 31ra arte (barne).

□ Diru-laguntzak errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskaraz ipintzeko: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren laburpena argitaratu eta biharamunetik hasita 2018ko abenduaren 31ra arte (barne).

Diru-laguntzen ordainketa erregistroaren hurrenkerari estuki jarraituz burutuko dira, aurrekontuetan kreditu nahikoa dagoen bitartean.

5.- Oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta deialdia Diru-laguntzei buruzko Datu Base Nazionalean erregistratuko da eta erakunde hau izango da deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bidaliko duena. Horrez gain, oinarriak

viceversa, siempre y cuando exista crédito suficiente para ello. Para ello, y con carácter previo, la Junta de Gobierno Local deberá aprobar el nuevo reparto de crédito entre las dos partidas.

4.- Los plazos para presentar las solicitudes serán:

□ Ayudas para aprender euskera: desde el día siguiente a la publicación del extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia hasta el 30 de septiembre de 2018 (inclusive).

□ Ayudas para la obtención del permiso de conducir en euskera: desde el día siguiente a la publicación del extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia hasta el 31 de diciembre de 2018 (inclusive).

□ Ayudas para la obtención del título de monitor-director de tiempo libre: desde el día siguiente a la publicación del extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia hasta el 31 de diciembre de 2018 (inclusive).

□ Ayudas a la rotulación en euskera: desde el día siguiente a la publicación del extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia hasta el 31 de diciembre de 2018 (inclusive).

Las ayudas se abonarán por riguroso orden de registro, siempre que exista consignación presupuestaria.

5- Las presentes bases se publicarán en el Boletín Oficial de Bizkaia y la convocatoria se registrará en la Base de Datos Nacional de Subvenciones, organismo que dará traslado del extracto de la convocatoria al Boletín Oficial de Bizkaia, sin perjuicio de que

eta deialdia Udalaren webgunean ere argitaratuko dira. Deialdia, BAOan argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Deialdiaren ebazpena ere Dirulaguntzei buruzko Datu Base Nazionalean argitaratuko da; halaber, Udalaren web gunean ere argitaratuko da.

**HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK, ETA INGURUMENA**

**101.- EZEQUIEL AGUIRRE KALEKO 2. ZENBAKIAN DAGOEN HIGIEZINAREN ATARIAN IGOGAILU BAT INSTALATZEKO ETA IRISGARRITASUNA HOBETZEKO OBRETAKO LIZENTZIA EMATEA.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

**LEHENENGOA.-**

I.- Eugenio Lázaro Díez jaunari, EZEKIEL AGIRRE 2ko jabe erkidegoaren ordezkartzan, eskatu duen obra lizentzia emango zaio, higiezin horretan igogailu bat ipintzeko eta atariko irisgarritasuna hobetzeko, aurkeztutako proiektuarekin bat etorritz, Idoia Letamendía, Borja Idiakez, Unai Unanue eta Unai Susaeta arkitektoek idatzia eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak 2018ko urtarrilaren 16an ikus-onetsia. Idazkian eskatutakoa zehatz bete beharko du.

Eskaileraren zabalera, gehienez, 80 cm izango da; beraz, "Lehendik dauden

tanto las bases como la convocatoria se publiquen en la Web municipal, entrando en vigor al día siguiente de su publicación en el BOB.

Asimismo, se publicará la resolución de la convocatoria en la Base de Datos Nacional de Subvenciones, así como en la Web municipal.

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS, Y MEDIO AMBIENTE**

**101.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA LA INSTALACIÓN DE UN ASCENSOR Y MEJORA DE LA ACCESIBILIDAD EN EL PORTAL DEL INMUEBLE SITO EN LA C/EZEQUIEL AGUIRRE, 2.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

**PRIMERO.-**

I.- Conceder a D. Eugenio Lázaro Díez, en representación de la COMUNIDAD DE PROPIETARIOS EZEQUIEL AGUIRRE, N° 2, solicita licencia de obras para la instalación de un ascensor en dicho inmueble, y mejora de la accesibilidad en el portal, de acuerdo con el proyecto presentado, redactado por los Arquitectos Dña. Idoia Letamendia, D. Borja Idiakez, D. Unai Unanue y D. Unai Susaeta, visado por el Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro, con fecha 16 de Enero de 2.018, debiendo de ajustarse enteramente a lo solicitado en su escrito.

Como consecuencia de que el ancho máximo de escalera se reduce a 80 cm,



egoitza-eraikinetan igogailuak jartzeko baldintzei buruzko Udal Ordenantzaren" 4. artikulua aplikatuz, neurri zuzentzaile osagarri hauek bete beharko dira:

a) Jabe erkidegoko bizilagun guztiek jakin behar dute, eta igogailuaren proiektua idazten duen teknikoak edo haren legezko ordezkariak jakinarazi behar diete, eskailera eta pasilloaren, hala balitz, zabalera murrizteak arriskua areagotzea dakarrela, bai ebakuaziorako bai larrialdi taldeek esku hartzeko orduan. Gainera, arriskuak murrizte aldera eskaileran jarri behar diren instalazio osagarrien berri emango zaie.

b) Eskaileraren bao osoari larrialdiko argiztapena emango zaio ebakuazioko ibilbide osoan.

c) Gutxienez, su-itxalgailu bat jarriko da solairu bakoitzean, 21/A 113/B eraginkortasunarekin.

d) Eraikinean suteak antzemateko sistema bat jarriko da, su-detektagailuak, alarma-sakagailuak, sirenak eta detekzio-zentral batekin. Hori guztia behar den moduan banatuko da.

II.- Obra egikaritzean enpresa batek baino gehiagok, enpresak batek eta hainbat langile autonomok, edo zenbait langile autonomok parte hartzen badute, sustatzaileak lanak hasi aurretik edo hasi bezain laster segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaile bat izendatuko du, obrek irauten duten aldirako.

III. Obrak egin bitartean, indarrean dauden segurtasun-neurriak hartu

y en aplicación del Artículo 4 de la "Ordenanza Municipal reguladora de las condiciones para instalación de ascensores en edificaciones existentes de carácter residencial", deberán cumplir con las siguientes medidas correctoras complementarias:

a) Todos los vecinos de la Comunidad de Propietarios deberán ser conocedores, e informadas a través del Técnico redactor del proyecto del ascensor o del representante legal de la misma, del incremento de riesgo que supone la reducción del ancho de la escalera y pasillo, en su caso, tanto para la evacuación como para la intervención de los equipos de emergencia así como de las instalaciones complementarias que se deben instalar en la escalera para mitigar los riesgos.

b) Se dotará a todo el hueco de escalera de alumbrado de emergencia en todo el recorrido de evacuación.

c) Se colocará al menos un extintor por planta de eficacia 21/A 113/B.

d) Se dotará al edificio de un sistema de detección de incendios con detectores, pulsadores de alarma, sirenas y una central de detección, todo ello adecuadamente distribuido.

II.- Cuando en la ejecución de la obra intervenga más de una empresa, o una empresa y trabajadores autónomos o diversos trabajadores autónomos, el promotor, antes del inicio de los trabajos o tan pronto se constate dicha circunstancia, designará un coordinador en materia de seguridad y salud durante la ejecución de la obra.

III. Durante el transcurso de las obras deberán adoptar las medidas de

beharko dituzte, hirugarrenei kalterik ez eragiteko.

IV. Obrak amaitutakoan, ikuskapen-bisita egokia eskatu beharko dute, eta horrekin batera honako hauek aurkeztu:

a) Obra-amaierako ziurtagiria eta likidazioa (igogailua barne), teknikari eskudun batek sinatuta eta dagokien elkargo ofizialak ikus-onetsita.

b) Zarata eta dardarei buruzko udal-ordenantzaren 7, 8, 9, 11, 12 eta 13. artikuluetan oinarrituta egindako neurketa akustikoen justifikazioa.

c) Bizilagunek prestakuntza jaso izanaren ziurtagiria; prestakuntza horren barne egon beharko dira etxeko arriskuak, bereziki suteak, eta larrialdi egoeretan nola jardun baita ere.

